

Astekaria

Musikaz blai

BARREN
elgoi



HERRI BATASUNAREN MITINA

Igandea 27, eguerdiko 12,30etan Plaza Haundian

HIZLARIA: Karlos Rodriguez

Herri Batasuna Sozio-Ekonomia Batzordeko arduraduna

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
Sardina Bakalau (Olga Unzilla)
- 7 ERREPORTAIA**
Herritarrak musikari
- 12 ASTE HONETAN**
Udal biltzar aretoko zinea
- 18 BERBETAN**
Iñaki Ansola:
"Arazo asko eduki arren Brasil herrialde alaia da"
- 19 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Evaristo Iceta (Musikoa)
- 20 KIROLA**
Elkarrizketa: Olga Garcia
Bittor Mujika, C.D.ko entrenatzailea, kalean
- 24 EUSKALTEGIETATIK BUELTAN**
Udal Euskaltegia: euskarari gogor ekinez
- 25 KULTURA**
Atal berriak, gehigarriak eta kolorea BARRENen

PREIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak....	461111
Txanda hartzeko ...	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Z.	741008
Odol Emaileen elkarte.....	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 44 41
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

farmaziak

- 26, larunbata: Bidasolo
- 27, igandea: Bidasolo
- 28, astelehena: Yudego
- 1, asteartea: Yudego
- 2, asteazkena: Yudego
- 3, osteguna: Yudego
- 4, ostirala: Ormazabal

okindegia

- 27, igandea:
- BOUTIQUE DEL PAN**



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Berto Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Sardina bakalau

Estima haundian izan dugu betidanik euskaldunok gure itsas gizonen Ternuako uretatik ekarri izan duten arrain klase bat.

Protagonista batzutan lagun arteko edo familia arteko bazkari eta afaritan. Bestetan, sukaldari ospetsuenen lapikoetan egosten denaren lekuko. "Pil-pil"ean ala modu bizkaitarrera prestatzen dugu nagusiki, gure arbasoen errezetak jarraituz. Makailoaz ari naiz.

Duela bizpahiru urtera arte, hori zen ezagutzen genuen makailo bakarra. Orain, berriz, beste mota bateko makailoa dastatzeko aukera ere badugu. Jakin, ez dakit ziurtasun osoz munduko zein puntatan sortu den izen horrekin bataiatu duten fenomeno edo mugimendu berri hau. Bai, ordea, Elgoibarreraino ere zabaldu dela. Kontsumo gizarte honetan, gure gogo eta portaerak nahi beste molda ditzakete publizitatearen eta "marketing"aren bitartez, eta bide batez denbora pasarako aukerak egokitu eta zuzendu. Baina nora zuzendu nahi gaituzte oraingoan? Aintzinan, bide guztiak Erroman elkartzen omen ziren. Gaur egun, aldiz, errepede nagusiak zirkuito berrien barruan daude "makailoaren erruta" desberdinak osatuz. Ez nuen uste horietariko bat gure herritik pasako zenik baina oker nengoen. Elgoibartarrok ere bete betean ezagutu dezakegu "modan" dagoen erritmo, doinu, dantza ala denadelakoa. Eta honek ez du

esan nahi musika mota hori ezagutzen ez genuenik. Ederki ezagutu ere. Baina aurrerantzean benetako makailoa dastatzeko aukera omen dugu, kalitatezkoa. Badirudi orain arte izan dugun hori "makailo light" a izan dela. Eta "produktua" ondo saltzeko, itxura aldatu egin diote. Argi dagoena zera da: musikari dagokionez, ez dela aldaketa handirik izango. Gehiago esango nuke. Lehen, tarteka eta noizean behin -nahiz eta dosi txikietan izan- beste musika klase batzu ere eskaintzen zizkiguten. Orain, ez gaituzte gehiago horrelakoekin harrituko, eginkizun horretarako animatzaile gazte bat eta zenbait "go-go" baditugu eta.

Argi dago ni ez naizela batera makailozalea baina honekin ez dut esan nahi dantzaleku batera joan eta beste musika estilo batzurekin batera makailoa ere jarriko balute onartuko ez nukeenik. Jasan ezina dena da, eta uste dut honetan jende asko bat datorrela nirekin, hainbeste orduz segidan eta etenik gabe doinu monotono eta errepikatzaile hori entzutea. Batek baino gehiagok pentsa dezake, gustukoa ez badut ez dudala zertan horrelako tokietara hurbildu behar. Ziuraski ez dute arrazoirik falta. Hobe genuke benetako makailoa saltsan hamaiketako orduan eta jarraian "lau, lau, lau, Sardina Bakalau...".

Olga Unzilla

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Baserritarrek kale-etxean banatzen duten esneak izaten al du inolako kalitate kontrolik?

-Nekazaritza bulegoko teknikariarekin jarri gara harremanetan eta ezetz erantzun digu. Arautu gabeko produkzioa denez, Osakidetzak ez omen du esne kalitatea kontrolatzen. Eroslea eta esnedunaren arteko konfidantzazko harreman batean oinarritu behar den salerosketa omen da. Bukatzeko, galdera bat luzatu digu: "Kexarik ba al dago orain arte baserritik ekarritako esnearekin?".



KEXAK

• OHOk 7. eta 8. mailakoek eta ertainetako 1go mailako gaztetxo batzuek deitu digute Udal Liburutegiaz kexatzeko. Berba piska bat egiteagatik hilabeterako kalera botatzen omen dituzte eta, beraien ustetan, ez omen dago hain zorrotza izan beharrik.



TXALOAK

• Gizonezko batek deitu digu halakoren batean Maalako komunak zabaldu dituztela eta. Ikustekoa omen zen larunbat arratsaldean kalean pixa egiten ari ziren gazteei komunak zabalik zeudela esaten, Udaltzainak nola ibili ziren. Berandu baina zorianak.

ESKUTITZAK

A-8 autopistan peajea kentzearen alde

Aspaldiko herri eskaerari erantzunez, EGUZKI ko ekologistok BILBO-BEHOBIA n peajea lehenbaitlehen bertan behera uztea premiazkoa dela uste dugu. Eusko Jaurlaritzaren errepede plangintza orokorrak, berriz, peajea mantentzea ez ezik, 2003. urtetik 2020era luzatzea ere proposatzen du. Plangintza honek errepede sarea arrazionalizatzea omen du helburu, baina, nork sinetsiko du?

Bilbo-Behobia autopistako peajearen luzapenak Maltzaga-Urbina ardatza eraikitzeke balio izango du. Administrazioke buruzagiek, diru laguntza Europatik etorriko dela sinistarazi nahi digute, baina guztiok garbi eduki behar dugu Maltzaga-Urbina ardatza eraikitzeke finantzabide bakarra A-8ko peajearen luzapena izango dela.

Europistasek, A-8ko peajeak ustiatzen dituen enpresak, urtean 5.600 milioi irabazten ditu, eta guzti hau geure poltsikoetatik... Non dago arrazionalitatea?

Gainera, Zornotza, Eibar edo Orereta bezalako kasuetan arrazionalitatea peajea kentzearen bidez etorriko da. Honela, aipatutako herrietan autopistak bariantearena egingo

luke, bertako bizilagunen onerako. Baina beti bezala, administrazioke zentzugabeko neurriak aurrera doaz zenbait herritan bariante paraleloak eraikitzen ari direlarik. Non dago hemen ere arrazionalitate?

Testuinguru honetan zera jakin nahi dugu: Ba al da Euskal Herrian gaur egun A-8ren liberalizazioa baino ekologikoki kalte gutxiago egiten duen, egiteke errazagoa den, efikazagoa eta demokratikoagoa den trafiko neurririk?

Erlantz Altuna
DEBA BAILARAKO
EGUZKI

Gure herriko arazoak

Egunero Ikastolatik Polikiroldegira joaten ibili gara igeriketa ikastaro bat egitera. IMHTik Polikiroldegira doan bidean dauden bi kableak, traban daude eta oso arriskutsuak dira oinez edo bizikletan doazenentzako. Gure ustez kable horiek gorago jarri beharko liriteke, edo bertatik kendu. Nor arduratu behar da arazo hau konpontzeaz?

Asier Elustondo eta Eneko Etxeberria

Ametza

KAFETEGIA

San Inazio, 2 ☎ 74 27 22 ELGOIBAR




OINETAKOAK

San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

Aste honetako erretratua **Joakin Gurrutxagak** laga digu. Berau 1941. urtean atera zen eta Plaza Txikiri izena ipini zioten egunekoa da. BARRENen 50. zenbakian Aita Agirrereren bizitzari buruzko xehetasunak eman genizkizuen eta 1941. urtean hil zela esaten genizuen. Hil zen urte berean, Elgoibarko agintariak Aita Agirrereren izena Elgoibarko plaza bati ipintzeak merezi zuela erabaki, eta hala egin zuten.

Ez dakigu elgoibartarrontzat, Aita Agirrereren plaza edota, Plaza txikia den. Hala ere, ikus dezagun zeintzuk ziren izen-emate ekitaldian egon ziren agintariak: (Ezkerretik hasita)

Juanito Iriondo, Demetrio Serrano (janari banaketaren arduraduna), bikarioa, **Teodoro Alkorta** (Elgoibarko alkatea) eta **Don Ramon Ormaetxea** (parrokkoa).



UNIFORM

JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitatrite, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

Elgoibarko HERRI ESKOLA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta O.H.O.



ZERBITZUAK

- **JANGELA APARTA:** Bertan prestaturiko jakiak. Subentzionatua. Menu egokia eta merkeak.
- **DOAKO GARRAIOA** INGURU GUZTIETATIK.
- **PEDAGOGI** AHOLKULARITZA (Eibarko P.A.T.)

ESKEINTZA:

- **Murgiltze plana:** D Hizkuntza Eredua
- **Gela bereziak:** 2 urteko haurren gela, informatika, laborategia, ikusentzunezkoa, hizkuntza laborategia, liburutegia, gimnasioa, plastika, heziketa berezia.
- **Ingelesa 3. mailatik gora.**
- **Gelaz kanpoko ekitaldiak:** Aterpeak, Baratze ingurugiro Hezkuntza zentroa, Pagoetako parkea, bestelako irteerak.
- **Eraikuntza moderno eta leku egokian kokatua:** Jolastoki ederrak eta ongi gordeak.

AURRE MATRIKULA EPEA
Martxoaren 1etik 15era



Elgoibartarrak musikari

Elgoibar, tradizio musikal handiko herria dela esan ohi da. Musikagintzaren arloko gizon ospetsu asko eman ditugure herriak: I. Lizarriturri, I. Bereziartua, Mugerza, J. Cordero, ... Horrelako aintzindariak izanda, musika alorrean izugarritzko mugimendua izan du Elgoibarrek. Garai bateko Cotton Club, Koska, Tol, Menopausicos articulados, Hug eta beste talde askok egindako lanaren jarraitzaile dira gaur eguneko, Kokoteraino, Zokoan eta abar. Haez gain, Udal Musika Banda, Udal Txistulari taldea, Duo Plentxi, Bereciartua Musikeskola eta bertoko orkestra, bi abesbatza, dultzaineroak, trikitilariak eta abar luze bat ditugu. Beraien lana diska batean gordeta geratu dadin guztiak saiatu arren, batzuek bakarrik lortu dute hori. Erreportaia honetan, elgoibartarrek grabatutako diska ezberdinen errepasua egingo dugu.

ANSOLA ANAIK

- DISKEN ARGITARAPENA: "Txistularis Ansola Hnos." (1971), "Ansola Txanbolinak" (1975) eta "Txistua dantzarako" (1977).
- KIDEAK: Joxe, Felix, Blas, Koldo eta Julian.
- MUSIKA MOTA: Euskal musika.
- ABESTI KOPURUA: 19 guztira.
- DISKETXEA: Columbia, Edigsa.

Elgoibarren jaio eta Markinan bizi dira gaur egun. Belaunaldiz belaunaldi, berrehun urte baino gehiago daramate Ansolatarrak txistua, danbolina eta atabala jotzen. Ansola anaien azken belaunaldia bost anaiek osatu zuten: Joxek, Felixek, Blasek, Julianek eta Koldok. Koldok silbotia jotzen zuen, Joxek bigarren txistua, Felixek lehenengo txistua, eta Julianek atabala. Felixi bandako zuzendaria izatea tokatzen zitzaion lehenengo txistua jotzen zuelako. Baina zuzentze eta jotze lanak batera egitean nahastu egiten zen eta anaia Joxek, bigarren txistua jotzen zuenak, hartu zuen zuzendari kargua. Ansolatarrak laukotea osatzen zuten eta Blasek Julianen ordezkotzen zuten honek atabala jo ezin zuean.

Ansola anaiak, "Txanbolinak" izan dira Elgoibarren diska gehien grabatu dituztenak. Hiru diska handi guztira. Duela 25 urte,

disken grabazioak ez ziren gaurkoak bezalakoak. Columbia disketxeak zenbait diska grabatzera etorri ziren Euskal Herrira. Bidaia aprobetxatuz Columbia etxeok, fundizioan lanean zeuden Ansola anaiei deitu eta Portugaletara joan zitezela esan zieten, diska grabatzera. Bertara joan, txistua behin jo, eta buelta etxera. Beste bi diskak Donostian grabatu zituzten. Oraingo honetan ere nahiko bizkor egin zuten grabazioa, ordubete eskas, baina hala ere, Portugaleten baino zertxobait luzeagoa izan zen grabazioa.

Maila handiko txistulariak izan dira Ansolatarrak. Txiki txikitatik Elgoibarko plazan eta kalejiretan jotzen zuten, aitarekin batzuetan, eta besteetan, aitona Silbestrekin. Herri askotako plaza eta kaleak zeharkatu zituzten eta lehiaketa askotan parte hartu dute eta sari asko irabazi ere bai.

1979. urtean Joxe, anaia zaharrena, gaisotu egin zen eta bere

heriotza eta gero, taldeko aktua-
zioak gutxitzen joan ziren. Jose
Mari Bastidak, Joxe gaisorik
zegoela, pieza bat egin zuen.
"Aski" izena jarri zion eta Bil-
bon jo zuten azkeneko lauok
elkarrekin.

Gaur egun, Felixek Gipuz-
koako jubilatuekin jotzen jarrai-
tzen du. Berarentzako txistua
sakratua dela eta ahal duen arte
txistua jotzen jarraituko duela
esan digu.



zuen eta beste hiru emakumeek
abestu. Gero, jaialdietan, talde-
kideek jotzen zuten kitarra.
Angela Zabaletak prestatzen ziz-
kien abestiak. Orduan sasoiko
kantuak, modan zeudenak eta
entzunenak zirenak grabatu eta
gero ikasi egiten zituzten. Kanta
bat esaterako, "Eurovision"
jaialdian Noruegak kantatutako
abesti saritua da. Letra asko Jua-
nito San Martinek euskararatu
zizkien eta izenburu berria ipini.

Uniformea eta guzti eduki
zuten. Haseran baina, soineko
urdina jutzen zuten, kate batzue-
kin gerria inguratuz, sasoiko
errepresioa adierazteko. Gero
beste bi uniforme egin zituzten.

Garaiko euskal jaialdietan
jotzen zuten, Benito Lertxundi,
Estitxu, Ameslariak, Trio Unai
eta horrelakoak lagun zituztela.
Taldeak lau bat urteko iraupena
izan zuen eta 1970. urtean dese-
gin zen.

LURGABE

- DISKAREN ARGITARAPENA: "Lurgabe" (1968).
- KIDEAK: Begoña Badiola, Regina Arrieta, Maria Luisa Zubiaurre eta Marisa Lizarralde "Agarre".
- LAGUNTZAILEA ETA ZUZENDARIA: Angela Zabaleta.
- MUSIKA MOTA: Folk.
- ABESTI KOPURUA: 4
- DISKETXEA: Phillips.

Lurgabe baino lehenago,
Bereluma izena zuen talde-
ak. Bereluma izena
jarri zioten, kide bakoitzaren
izenaren lehen bi hizkiekin osa-
tutakoa. 1966. urtean osatu
zuten taldea. Lagunartetik sortu
zi-tzaien musikarekiko zaletasu-
na. Mendira joaten zirenean,
edota lagunarteko tartetan, kitar-
ra jo eta kantatu egiten zuten.
Sasoi hartan, "Ez dok hamairu"
sortu berria zen eta giro horretan
taldea osatzera animatu ziren. Bi
urte beranduago, 1968an, taldea-
ren izen berdineko lehen diska
eta bakarra grabatu zuten Madri-
len, estudio oso inportante bate-
an. Lau kantaz osatutako single
tamainako diska hau hiru kidek
bakarrik grabatu zuten. Ordura-
ko Marisa Agarrekin taldea lagata
zeukan. Diska grabatzeko Jose
Zubiaurre "Balle"ren laguntza
izan zuten. Honek kitarra jo



KOSKA

- DISKEN ARGITARAPENA: "Koska" (1976) eta "Bihozkadak" (1978).
- KIDEAK: Alfonso Guilló, Gabi Agirregomezkorta, Jose Ramon Gurrutxaga, Enrike Iriondo eta Luis Diego. Teknikoa Natxo Garate.
- MUSIKA MOTA: Euskal rocka
- ABESTI KOPURUA: Lehen diskan 9 eta bigarren diskan 6.
- DISKETXEA: IZ eta Xoxoa.


Koska baino lehen,
"Expresión sonora"
(1969-71) izena zeu-
kan taldeak. 1971tik abestiak
prestatzen hasi eta garai hartan
diska bat ateratzea oso zaila
bazen ere, Koskak bere bi diske-
tatik lehena grabatu zuen IZ
estudio sortu berrian. Kantu ba-
tzuk Antxon Aranbururen letra-

rekin eginda zituzten eta lau bat kantu, diska osatzeko hilabete batean egin zituzten. Lehen diska, taldearen izen berbera daramana, ikurriña legalizatu zen urte berean atera zuten eta gertaera hori erreferentzia gisa hartuta diseinatu zuten diskaren azala. Garai baten islada da Koska. Gai sozialak, denuntziatzeko abesten zituzten. Lehen diskaren bigarren zatian, letrak oso poetikoak dira, metaforikoak. Letra gehienak Alfonso Guilló idatzitakoak dira eta bigarren diska, letren edukian behintzat, gogorragoa da. Musika ere askozaz landuagoa da bigarren diskan.

Euskal rockaren sortzaile eta aintzindari dira Errobirekin batera. Uda berean atera zuten biek diska bana. Ordura arte musika arina baino ez zen entzuten. Hasera haseratik, Koska rocka jotzen hasi zen, eta beti euskaraz. Euskalzaletasuna eta rockaren artean jaio eta hazi ziren.

Euskal Herri osoa zeharkatu zuten Koskak kontzertuak emanaz euskal jaialdietan. Benito Lertxundi eta horrelako abeslarien artean "bitxo arraroak" zirela esan digute. Aurrerago berbenetan jotzea erabaki zuten, 1980. urte inguruan. Orduan irabazi omen zuten lehen aldiz diru apur bat.

Duela bost bat urte Koska izenari "Trenbide" gehitu zioten eta izen horrekin hainbat urte eta krisi igaro ondoren, Koska izenarekin soilik geratu da. Taldeak ez dauka oraindik norabide oso argirik eta momentuz, urte honetan behintzat, berbenetan jardutea pentsatu dute. Belaualdi berri batek rockero haien errelebua hartu du eta talde orijinaletik, Gabi Agirregomezkorta bakarrik geratzen da. Etorkizunean, batek daki!



TOL

- DISKAREN ARGITARAPENA: "Oasis" (1986).
- KIDEAK: Jesus Mari Sarasua, Alberto Iriondo eta Jabi Ezenarro. Laguntzaileak Aitor Aranburu, Josetxo Silguero eta Anjel Gonzalez.
- MUSIKA MOTA: Instrumentala
- ABESTI KOPURUA: 8
- DISKETXEA: IZ

Tol 1980an sortu zen. Orduetik 1986ra bitartean konposatu zituzten abestiak. "Oasis", taldearen aurkezpen eta heriotza izan zen, diskoa atera eta berehala desegin baitzen taldea. Garai hartan izugarriko mugimendua zegoen. Materiale aldetik eskasia zen ezaugarri nagusia, eta taldeen artean materialea elkar trukatzeko zuten. Tol-en hasera ere nahiko gogorra izan zen. Albertok eta Jesus Marik txaranga jotzen zuten. Albertoren aitak Hammond organu bat erosi zuen eta Jesus Marik, soldaduzka Canarias-en egiten zegoela aprobetxatuz, sintetizadore batzuk ekarri zituen.

Musikaz ezertxo ere jakin gabe gaztetako utopiarri ekin zioten. Konposizio lanetan Alberto Iriondok jarduten zuen. Jean Michel Jarre, Vangelis,... musika elektronikoaren aldekoa zen Jesus Mari. Alberto Iriondori, berriz, musika melodikoa atsegin zitzaion eta ezberdintasun hau diskoan bertan igartzen dela esan digute. Bigarren aldea, Albertok egindako abestiez osatutakoa, askoz melodikoagoa da.

Diputazioak lagundutako diskoa, haseran mila ale banatu ziren, baina banaketa "desastre hutsa" izan omen zen. "New Age" erako musika dela esan liteke, sekuentziadoreak, sintetizadoreak eta erritmo kaje bidez lortutako musika. Esperantza handiko taldea zen arren, Sarasuak berak esan digun bezala "profesionala izan ezean oso zaila da zerbait gitea".

UDAL MUSIKA BANDA



- DISKAREN ARGITARAPENA: 1991.
- KIDEAK: Iruñako Gaiteroak eta Elgoibarko Musika Banda.
- ZUZENDARIA: Jose Antonio Osoro.
- MUSIKA MOTA: Euskal musika klasiko eta tradizionala.
- ABESTI KOPURUA: 11
- DISKETXEA: Elkar.

Elgoibarko Musika Bandak ehun urtetik gorako bizitza eduki arren, 1991. urtea arte ez zuen lehen diska grabatu. Musika banda eta Iruñako Javier Lakunza eta Jose Luis Fraile gaiteroen artean grabatua dago diska. Ideia Iruñako gaiteroen eskutik sortu zen eta asmoa gaitaren soinua bandako gainontzeko instrumentuen soinurekin bat egitea.

Haseran 1000 kopia atera zituzten eta estreinaldian bakarrik 800 inguru saldu ziren. Hori dela eta bigarren edizio bat ere atera zuten. Finantziazioa Udalak eta Iruñako "Principe de Viana" erakundeak hartu zuten bere gain.

Elgoibarko Banda Udalak sortu zuen 1885. urteko uztailaren 1ean. Orduan, parrokiako organujole zen Ildefonso Lizarriturri musikagileak hartu zuen zuzendaritzaren ardura. Gaurdaino, zazpi zuzendari izan ditu.

Bandak beste diska bat grabatzeko asmoa dauka etorkizunean. Banden arloan, diska ugari grabatuta daudenez, errepertorio aldetik zerbait desberdina lortzea nahi izan dute elgoibartarrek. Horregatik, denbora asko eman dute obrak topatzen eta prestatzen. Oraingoz ez dakite ziur noiz aterako duten hurrengo diska. Hori, dirua eman behar duenaren esku omen dago.



EHUN KILO

- DISKAREN ARGITARAPENA: "Euli artian" (1993).
- KIDEAK: Jon Zabala, Kamilo Fernandez, Jabi Bergara, Jon Iturrino eta Kristian Etxabe.
- MUSIKA MOTA: Euskal heavy-a.
- ABESTI KOPURUA: 12
- DISKETXEA: Oihuka.

Ehun Kilo taldeak 1993. urte bukaeran Durango-ko liburu eta diskaren azokan aurkeztu zuen lehen diska, "Euli artian". Diska hau taldeak emandako kontzertuen bilduma da. Urteetan zehar egindako abestiek eta aspalditik zeuzkaten melodiek osatzen dute. Hiru abesti berriak dira, okasiorako espreski egindakoak. Guztira 12 kantu dira. Hauetatik bat, "Tango Feroz", gaztelaniaz abestutako bakarra da eta Jon Sotoren omenez gina dago.

Kanten letrak ez dituzte beraiek idazten, horretan laguntzen duten kolaboratzaile batzuek baizik. Normalean, konprometzuko letrak izaten dira.

Grabazioen munduaren lehen saiakera, berriz, taldearen izen berberarekin grabatutako maketa izan zen. Mila kopia banatu eta guztiak saldu ziren. Disketxekoek maketa entzun zuten eta taldekoek ere diska bat grabatu nahi zuten... "Euli artian" sortu zen.

Herriko rock panoraman, Koskaren ostetik, Ehun Kilo izan da rock diska bat grabatu duen lehen taldea. Ehun Kiloko kideak musika munduan hasi zirenean 17 talde zeuden Elgoibarren. Zaletasuna bai, baina, handik lau talde bakarrik geratu ziren, eta gero, bi. Bata Napalm eta bestea, Eriel. Napalmetik Ehun Kilo sortu zen. Estiloa apenas aldatu duten eta partaideak esperientziadunak dira musika alorrean.

COLEGIO EL PILAR -ELGOIBAR



*Duela 25 urte
eta gaur egun ere, hezkuntzan lanean.*



PILAR IKASTETXEA -ELGOIBAR

AITZ BIZKAR ARDOAK
 ARDO ETA PATTARRA
 PATATA SALMENTA
Etixerainoko banaketa
 Errosario 18
 ☎ 74 02 37

TIRO RIRO



San Frantzisko, 54. 74 13 86

UDA BERRI
ELGOIBAR

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
 Errosario 15 Behea.

IDARRAGA
 KAFEAK

Eguneroko errealdiak
 San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39



rambarri

ASEGURUAK

San Bartolome 15
 Tel. 74 3037

ASTE HONETAN

Udal biltzar aretoko zinea

Zergatik joaten gara zinera? Zergatik lantzen du irudimena zinezaleak zine irudiak ikusteari emanda? Zein iritzi daukagu zinea Udal Batzar Aretuan jartzeari buruz? Galderak, galderak eta hamaika gertaera.

Zinea Batzar Aretuan izan zen Ongarri Zine Elkarteko kide batek amets bati eman zion irtenbidea.

Errealitatearen eta ametsen fabrikak bat eginda, Ongarri Zine Elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Udal Aretoa zinerako areto txiki bat bihurtu zuen. Herria ez zen zinerik gabe geldituko Herriko Antzokia berritzen zuten bitartean. Proiektua, bere erai-kuntza, muntaia ez zen batere erraza izango. Zine materiale guztiak inoiz zinea bizi ez zuen lokal batera pasa behar ziren. Azken emaitza areto polit bat, zinema askok nahiko luke ten dekorazioa, primerako proiektzioa eta soinu egoki bat izan da, nahiz eta bere alde txarra ere baduen: hilabete gutxi batzurako baino ez diren behin behineko egurrezko aulki gogor batzuk.

Zinera joatea, zineaz hitz egitea eta zinea maitatzea da Ongarri Zine

Elkartearen nahia. Elgoibarren merezi duen tokia eskaini nahi diogu zineari, nahiz eta badakigun zaila dena eta bere denbora beharko duena.

Zergatik zinea Batzar Aretuan? Bostgarren ala seigarren zinea izango al da hau Elgoibarren? Herriko Antzokiko lanak amaitzen direnean zinearen aro berri bati hasera emango al zaio Elgoibarren?

Momentuan Juanma Bajo Ulloaren "La Madre Muerta" pelikula ikusteko gonbitea luzatzen dizuegu.

Euskal zinea, errealitatea ala fikzioa? Batzar Aretuan izango gaituzu zain.

(Erredakzioan itzulia)



IÑAKI SAN MARTIN



HERRI-GAİN

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Zer iruditzen zaizu Udaletxeko zinea?



Jose Antonio Agote
36 urte, ATS

Ez naiz egon eta ez zait areto egokiena iruditzen. Herriko Antzokia berritzen duten bitartean ondo dago, baina luzerako soluzio bezala ez.



Gemma Arias
22 urte, ikaslea

Beste aretoa konpondu artean... Joan izan naiz inoiz, ez askotan. Norabait joateko leku bat izan dugu, behintzat. Ea noiz bukatzen duten bestea.



M. Isabel Vazquez
45 urte, etxekoandrea

Aulkiak piska bat gogorrrak iruditu zitzaizkidan; hurrengo batean kojina eramango ditugu. Ideia ondo dago, irtenbide ona izan da.



Haritz Ibarluzea
20 urte, ikaslea

Ixa igandero juten naiz baina aulkixak gogorrrak diala pentsatzen dot. Pelikulak onak dia baina nahixao dot beheko zinian ikustia.



Javi Agirre
35 urte, langabetua

Fenomeno! Zegoen hutsunea nolabait bete behar. Aukera onena zen. Gainera, jendea eta Udalaren arteko distantzia ere laburtu egin da.



Ana Ansola
33 urte, irakaslea

Ezin dut ezer esan ez naizelako inoiz egon. Lokala ez da egokiena eta aulkiak ere ez direla oso erosoak entzun dut. Besterik ezean...

Gorostiza

DIETETIKA

ZABALDU BERRIA

- Sendabelarrak
- Kosmetika naturala
- Dietetika
- Eskolako materiala...

Plaza merkatua 7-8-9

EMAKUMEEN BAZKARIA

bertsolariekin alaituta

Saioa Arando eta Ainhoa Agirreazaldegi

KIMETZ ELKARTEAN

Martxoak 6an, igandea, eguerdiko 2,30etan.

MENUA:
Entsalada, bildotsa, postrea eta kafea.

PREZIOA: 1.300 pta.

IZENA EMATEKO: Oizmendi, Jai-alai eta Plaza merkatuko taberna (Ostirala hilaren 4a baino lehen)

ANTOLATZAILEA: ANDRAIZE Emakume Taldea LAGUNTZAILEA: ELGOIBARKO UDALA

■ HBk hiru emendakin jarri dizkio euskarari buruzko ordenantzari

Laster onartuko den euskarari buruzko ordenantzari hiru emendakin gehituko dizkio Herri Batasunak. Alde batetik, elgoibartar guztiek euskara ikasteko dirulaguntza jasotzeko aukera izan dezatela eskatuko du. Bai eta langabetuek ere. Hirugarren emendakina, Udalak hizkuntza honen normalizaziorako lanean aritzen diren institutu, ikastetxe eta erakunde lokal guztiei laguntza eskaintzea da.

EA bat dator HBrekin lehenengo bi puntuetan, halere, ez du egoki ikusten Udalak eskaintzea laguntza elkarte ezberdinei.

Euskara Batzordeak (PNV, EA eta HB) 1994ko urtarrilean burutu duen ordenantza honek, udal administrazioak, bere menpe dauden erakunde, edota dirulaguntza emanaz, edota zerbitzuak eskainiz laguntzen dituen erakunde eta ekintza guztiak hartzen ditu bere baitan; helburua guzti hauetan euskararen erabilera bultzatzea eta indartzea delarik.

■ LOGSE ri buruzko hitzaldia

Elgoibarko Batxillergo Institutuak eta Lanbide Eskolak antolatuta, solasaldi elkarrizketa bat izango da Lanbide Eskolako aretoan datorren ostegunean, martxoak 3.

Antoni Zabala, Cataluniako ikertzaile ospetsuak, erreformak irakaskuntzan eta LOGSE batxillergoetan izan duen eraginari buruz hitz egingo du. Arratsaldeko 3etatik 6etara izango da saioa eta gaian interesa duten irakasleak joan daitezke.

Udal Txistulari taldea Azpeitin izango da igande honetan ere



Igandean, hilak 27, Elgoibarko Txistulari Udaltaldeak Azpeitin antolatu dituzten ekintzetan parte hartuko du, bertako Udalak gonbidaturik. Eguerdiko 12etan kalejira izango da. Ondoren, ordubatak aldera, udaletxeko arkupetara hurbiltzen diren guztiek kontzertu bikain bat entzuteko parada izango dute, Elgoibarko

Txistulari Udaltaldeak eskainia, Azpeiti, Iruña eta Tolosako Txistulari Udaltaldeekin batera. Joan zen astean ere Azpeitin izan ziren herriko txistulariak, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak, Udal Musika Bandako metal taldea eta Haritz Euskal Dantzari Taldearekin batera.



Anje Duhalde euskal rock abeslaria izan genuen kantari joan den ostiralean Kultur Etxeko hitzaldi aretoan, DEBABE euskaltegien mankomunitateak antolatuta. Anjek bere errepertorioko zenbait abesti eskaini zizkien bertan bildu ziren euskaltegiko ikasleei. Argazkian, Anje Duhalde ekinean.

Udala eta Elgoibarko Izarraren arteko hitzarmena

Otsailaren 22an sinatu zuten Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 1994. urterako hitzarmena. Bertan Udalak elkarteari luzatuko dion dirulaguntza zehazten da, elkartearen iharduera bakoitzari zenbateko diru kopurua dagokion azalduz. Aurtengoan 10 milioi inguru pezetako diru laguntza jasoko du Elgoibarko Izarrak, hauetatik 7

milioi t'erdi BARREN astekaria argitaratzeko direlarik.

Hitzarmenean Udalaren ize-nean Jose Inazio Elkoro-Iribe alkate jauna eta Juan Mari Eguren euskara zerbitzuko lehendakaria izan ziren. Elkartearen izenean, berriz, bertako lehendakari den Ales Arrietak eta BARRENEko zuzendariak, Alberto Agirreazaldegik, sinatu zuten.



■ Martxoak 8, emakumearen eguna

Datorren martoxak 8, emakume langilearen eguna ospatzen da mundu guztian. Ospakizunen artean, Elgoibarko Andraize emakume taldeak hainbat ekintza antolatu ditu. Astebukaeran, hau da, ostirala, larunbata eta igandean, "Shirley Valentine" pelikula emango da Udal Biltzar Aretoan. Larunbatean, hilak 5, emakumeei buruzko liburu erakusketa egongo da San Frantzisko iturri aurrean. Igandean emakumeen arteko bazkaria egingo da, bertsolariak lagunduta Kimetz elkartearen. Ekitaldiak astelehenean, Zaharren biltokian izango den emakumea eta prentsari buruzko hitzaldiarekin bukatuko dira.

■ Ibilgailuen azterketa

Ibilgailuen azterketa egiteko epea datorren martxoaren 4ra arte ez da bukatuko. CADEM erakundeak burutzen ditu azterketak eta gogoratu, doan direla. Azterketak San Roke auzoan, Goardia zibilaren koartela zegoen tokian egingo dira, astelehenean ostiralera bitartean, goizeko 10etatik eguerdiko 1ak arte eta arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara.

Belaguako mendien babespean ateratako argazki honek erakusten duen bezala, Morkaiko Mendizale elkarteak antolatutako fondoko eski ikastaroak izugarritzko arrakasta eduki du. Joan den astebukaeran argazkiko 48 eskiatzaile "trebe" hauek egindakoen ostean, Morkaikok esperientzia errepikatzea erabaki du. Ikastaroaren bigarren zatia, martxoaren 19 eta 20an burutuko da, Belaguako pistetan. Oraingoan plazak 40 baino ez dira izango eta, prezioaren zenbatekoa 8.500koa izango da bazkideentzat, eta 9.500 pezetakoa, bazkide ez direnentzat.



Kultur Etxea Deba Beheko IGPen kokagune izango da

Astelehen honetan, hilak 28, bilduko dira Kultur Etxean Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan sortutako Deba Beheko IG Pak (Interbentzio Gune Parte-hartzailea) edo NIPak. Gune hauek bailarako 100 bat biztanlez osatuta daude eta egunak aurrera joan ahala, Maltzaga-Urbina ardatzaren behararen inguruko erabakiak hartuko dituzte. IGP hauen arduraduna den Lucio Ugartek esan digunez, 100 pertsona hauek 25 lagunetako lau talde-tan banatu dituzte eta, Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Mendaró, Ermua, Mallabia eta Plaentxi-ko biztanleez osatuta daude. IGP hauetan parte hartzeko jarritako buzoietan 29 elgoibartarrek eman zuten izena.

Proiektuaren aurka

Maltzaga eta Urbina artean autopista edota autobiderik erai-



kitzearen aurkako plataformak, "Deba bailara bizi bizirik" elkarteak, proiektuaren aurka dauden hainbat talde bildu zituen Kultur Etxean. Bertan Katagorri, Mendia Bizirik, EKI, Eguzki, HB eta Gatzaga-Landako biztanleen ordezkariak autopista egitea, ekologia,

ekonomia zein bizi kalitatearen aldetik, soluziobiderik desegokiena dela adierazi zuten. Taldeek A-8 peajearen ordainketa ez luzatzea eskatu zuten eta, bailarako komunikaziorako soluzioa, dauden errepideak hobetzea eta karrilak gehitzea dela azaldu zuten.

Santa Klararen VIII. mendeurrena ospatzen da



Asisko Santa Klararen jaio-tzaren VIII. mendeurrena ospatzen da aurten. Data berezi hau dela eta, Elgoibarko Klaratarren lagundiak hainbat ekintza antolatu ditu, otsailaren 28a eta martxoaren 4a bitartean. Bost hitzaldi izango dira, aipatu egun horietan banatuak. Otsailaren

28an Arturo Garcia ekonomilariak eta Sor María Triviño teologoak behartsuei buruz hitz egingo dute. Martxoaren lehen emakumea izango da gai nagusia eta martxoaren 2an gaur egun klausuran bizitzearen zergatiak azalduko dira, bi hauek Sor Maria Triviño hizlariaren esku-

tik. Elgoibarko herrian Santa Klarako monjek egin duten lanari buruz mintzatuko da Joxin Arregi apaiza, martxoaren 3an. Azkenengo hitzaldiaren ardatza Asisko Klararen bizitza izango da, berari buruz ari-tuko delarik Iñaki Beristain teologoa, emakume hark egungo kristau batentzat suposa dezakeena esanaz.

Duela 460 bat urte osatu zen Klaratarren lehen komunitatea, 1533. urtearen bueltan. 1976an komentu berria estrainatu zen, txikiagoa eta funtzionalagoa, garai berriei hobeto egokitzen zitzaiena. Gaur egun "Proyecto hombre", "Alkoliko anonimoak", otoitz talde eta beste hainbat kolektibo Santa Klarako komentuan elkartzen dira. Gaur egun 11 monja bizi dira bertan, eguna zenbait lantegirentzako lanak egiten eta otoitzean ematen dutelarik.



■ *Hezkuntza serio eta efikaza oinarri hauen gainean:*

- *Giza baloreak.*
- *Ikasleei egoera berriak gainditzeko beren estrategiak sortzen irakastea.*

■ *"Euskeraz Bizi"ren barruan: Ikasi eta erabili!*

■ *Ingelera 4 urtetatik nazioarteko adituen eskutik.*

■ *Asmoak betetzen efikazak izateko baliabideak:*

- *4.000 m² kirol eta jolas leku.*
- *Irakasle guztiak euskaldunak, % 10a ingeleradunak.*
- *Egun guztiko psikologo orientatzailea.*
- *Musika 6 urtetatik 14 ra arte.*

IKASTOLA

2 urtetik 16ra bitarteko Hezkuntz Proiektua

Iñaki Ansola:

"Arazo asko eduki arren Brasil herrialde alaia da"

Iñaki Ansolak hiru urte daramatza Brasilen bizitzen. Orain dela zortzi urte, berak eta Elgoibarko beste lagun batek udako oporrak Brasilen pasatu zituzten. Salvador hiria ezagutu zutenean, hango jendea, kaleak eta klima gozoa Iñakiren bihotz barruraino sartu ziren.

Ordutik aurrera, oporrak zituen bakoitzean hegazkina hartu eta Salvadorreko bidea hartzen zuen. 1992ko udan bertako neska batekin ezkondu zen. Betirako Brasilen biziko dela esan digu Gabonetako oporrak gure artean pasa dituen 38 urteko elgoibartar honek.

- Zergatik gustatu ziztzaizun hainbeste Salvador hiria?

- Heldu nintzenean oso gauza berezia sentitu naban. Ez da erraza esplikatzia. Bapatean oso gustura nengoela igarri nuen. Kaleetatik pasatzen edo jendearekin hitz egiterakoan ederki asko sentitzen nintzen. Norberak bere herrian dagoenean sentitzen dabana igarri naban nik han. Hala ere, ez pentsa dena zoragarria danik. Salvador, Bahia Estatuko hiriburua da, 2.500.000 biztanle ditu eta langabezia eta miseria handia.

- Zertan aritzen zara?

-Hemen egiten naban lan berbera daukat han. Irakaslea naiz. Espainoleko klaseak eman eta itzulpenak egiten ditut hizkuntz eskola batian. Aurrerago ikasketak zentru bat antolatzen asmoa daukat. Lan munduan sartzeko kurso espezializatuak eman nahi nituzke, hizkuntzen ikasketak barne.

- Zeintzu izan dira Brasilgo bizimodura egokitzeke izan dituzun trabarik haundienak?

- Bertako gizartean



"Brasilgo kultura eta arrazen arteko errespetua ejenplu izan behar da mundu guztiarentzat".

integratzia ez jata oso zaila egin. Gogorrena zerotik hastea da. Nere bizimodua guztiz aldatu behar izan dot. Hemen, Lanbide heziketako irakaslea nintzen, funtzionarioa. Horrek ematen zizkidan komodidade guztiak alde batera laga eta hutsetik hasi behar izan dot. Hala ere, ez naiz batere damutzen.

- Hitz gutxitan, nolakoa da Brasil?

- Oso handia eta kontrastez betetakua. Berez oso aberatsa bada

ere, jende asko miseria gorrian bizi da. Brasilek izugarritzko balibide naturalak ditu, baina aberastasunak gutxi batzuen eskuetan daude bakarrik. Makina bat arazo euki arren, Brasil munduko herri alaienetariko bat da. Pobrezia bizi arren, brasildarrek ez dabe sekula umoria eta maitasuna baztertzen.

Bestalde, Brasilen arraza eta sinismen ezberdin asko dago. Mundu guztitik etorritako kulturak biltzen dira:

Afrikako esklabuak, Europako kolonizatzaile eta emigranteak, Asiako merkatariak, Amerikako indigenak... Mestizajea ikaragarria da. Eta arrazismoaren arazoa guztiz gainditu gabe badago ere, jende askok ez du kolore ezberdintasunik egiten.

- Gaur egun zein egoe-ra bizi du Brasilek?

- Ez dut uste, oraingoz behintzat, gauzek hobera egingo dutenik. Hala ere, brasildarrek ez dute sekula itxaropenik galtzen. "Brasileño: profesión, esperanza" dio hango esaldi ezagun batek. Brasil piskanaka-piskanaka egiten ari den herria da. Orain dela gutxi lortu zuen independentzia eta bertan bizi diren kultura eta arrazen arteko errespetua ejenplu izan behar da mundu guztiarentzat. Komunikabideek miseria eta biolentzia bakarrik erakusten digute, baina Brasilek gauza interesgarri asko ditu: natura zoragarria eta pentsakera, sinismen eta sentimentuetan izugarritzko aberastasuna.

AITOR ZABALETA

BATA ala **BESTEIA**

Angel Yudego

"Yudego" lurrindegikoa



- **Betidanik drogerian?** ▶ Bai, 16 urte nituenetik gutxi gora behera.
- **Egia al da gizonek ez dutela beraien gorputza emakumeak bezain ondo zaintzen?** ▶ Badira salbuespen batzuek, baina normalean horrela da.
- **Seduzitzen zaituen usain bat?** ▶ "Gotas de oro".
- **Badira norberaren usaina estaltzeko besterik balio ez duten perfumeak daudela pentsatzen dutenak. Zer diozu hortaz?** ▶ Erratuta daudela uste dut. Bere usain txarra kentzea nahi duenak, har dezala dutxa on bat.
- **Zer suposatzen du zuretzat bazkalosteko puruak?** ▶ Satisfazio izugarria. Niretzako sakratua da.
- **Nor edo zer izatea gustatuko litzaizuke?** ▶ Ni neu.
- **Urte bat?** ▶ Bi urte aipatuko ditut: 1974 eta 1976.
- **Zergatik?** ▶ 1974 urte triste bat bezala gogoratzen dut, nire emaztea hil zen urtea da. 1976. urtea, ostera, oso zoriontsua izan zen, gaur egun nire emazte denarekin ezkondu bainintzen.
- **Gizon lasaia dirudizu. Horrela al da?** ▶ Bai. Bizitza honetan sor daitezkeen momentu txarrei aurre egiteko lege garrantzitsu bat dela uste dut.
- **Dutxan abesten al duzu?** ▶ Noizean behin bai. Abestu, garraisi egin edo antzerako zerbait.
- **Masaje on bat hartu ala eman?** ▶ Hartu. Asko gustatzen zait.
- **Itsatsoa ala mendia?** ▶ Biak gustatzen zaizkit.
- **Mozorrotu al zara ihauterietan?** ▶ Ez.
- **Zertaz jantziko zinatekeen?** ▶ Momentuaren arabera gauza batetaz edo beste batetaz.
- **Erraza al da ideia finkorik gabe datorren bezero bati aholkuak ematea?** ▶ Nik emandako aholkuei kasu egiten badio bai.
- **Markak berez saltzen al du?** ▶ Marka zaleak diren pertsonen artean bai, markari garrantzia ematen ez diotenen artean, oster, ez.
- **Azkenik, esaiguzu zein den zure ohiturarik txarrena.** ▶ Gauzak diren bezala ez onartzea.

ISABEL ANSOLA

Evaristo Iceta

Musikoa



- Jaioteguna ez, baina 1957ko apirilaren 7an hil zela badakigu.
- 25 urtez izan zen Santa Cruz de Tenerifeko Musika Bandako zuzendaria.
- Kirolari eta kirolzalea, pilotan jokatzeari gaitz, hainbat kirol elkartetan ere hartu zuen parte: futbol elkarteak, txirrindularitza...
- Oso ezaguna zen Tenerifen; "El vasquito" deitzen zuten.
- Arrakasta handia izan zuen abesbatzetarako obren konpositore bezala: "Fantasía Egipcia", "Capricho Oriental", "El Ruiseñor"...
- Irusta Fugazot eta Demare argentinarrek, zenbait diska argitaratu zituzten bere lanekin.
- Bere hiletan, Musika Bandak horrenbeste urtez maixu izan zuenaren gorpuaren gidaritzapean jo zuen. Azken egun hartan ere bandak Evaristo Iceta izan zuen zuzendari.



*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu
BARRENeK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

MOTZAK

Carmen Perea seigarren Espainiako txapelketan

Joan den astebukaeran pista estaliko Espainiako txapelketa jokatu zen Anoetan. Ego-Tokiko korrikalari den Carmen Perea 800 metrotako finalerako sailkatzea lortu zuen larunbatean korritutako lasterketan 2:19:54 segundutako denbora eginez. Igandeko finalean seigarren postua lortu zuen Carmenek. Helburua finalean sartzea bazen ere, Ego-Tokioak pozik daude lortutako emaitzarekin. Dena den, gusturago leudeke iaz egindako 3. postua berdintzea lortu izan balu.

Tenis pistako alokairuak

Martxoaren 1etik aurrera Udal Tennis pista alokatzeko Mintxetara zuzendu beharko da. Horretarako bertara joan edota telefonoz deitu ahal izango da 74 43 15 zenbakira, goiz eta arratsalde. Gazteen ordu bateko alokairua 200 pezetakoa da eta nagusia 400 pezetakoa. Prezioaren barruan dutxen erabilera sartzen da. Orain arte alokairuak Kirol Zerbitzuak egiten zituen. Neurri honekin jendeari alokairuak egiteko aukera erraztu nahi izan zaio, goizez zein arratsalde eta astebukaeratan egin ahal izango dutelarik.



Olga Garcia: "Aerobic-a forman egoteko metodo ona da"

■ **Olga, zer gimnasia irakasten duzu?** - Aerobic, mantenuko gimnasiarekin konbinatuta. Aerobic-ean, beti, oxigenoa kontsumitzen saiatzen gara, koordinazio ariketak egiten ditugu, estiramenduak ere asko... Klaseak erosoak eta agobiorik gabe-koak izaten saiatzen naiz.

■ **Nola erantzuten du gorputzak ariketa horien aurrean?** - Emaitzak ikusteko etengabe lan egin behar da gimnasioan. Emaitzak egoera fisikoan eta, psikikoan ere ikusi behar dira. Gimnasioaren ostean, gorputza aktibatu egiten da, esnatu.

■ **Argaltzeko modua izan al daiteke?** - Noski. Piskanaka eta agobiatu gabe. Nork bere erritmoaren arabera, denok ezin baitugu erritmo berdina jarraitu. Uretako aerobic-a ere oso ona da. Baina jendea ez da horregatik etortzen. Lagun artean egon, zerbait egin eta orokorrean, forman egoteagatik etortzen dira.

■ **Harrera ona izan du zure klaseak?** - Oso ona. Manu Morak orbitan sartu ninduen. Jende gutxirekin hasi nintzen eta orain 20ko taldea daukat.

■ **Noiztik honetan?** - Beti gustatu izan zait gimnasia. Gero, hezkuntza fisikoko monitore titulua ateratu nuen, ikastaro-



ak egin, gimnasioen munduan ibili nintzen... Orain nere estilo propioa sortu nahi nuke. Baina hori urte asko eta gero lortzen da. Gainera, aerobicak arlo asko ditu; ez da saltoak ematea bakarrik.

■ **Gero eta gorputz landuago eta argalagoak ikusten dira.** - Bai, oso nabaria da. Forman egoteko ipurdia mugitu behar da eta ez San Lorentzora joan bakarrik. Hori bai, ez da obsesionatu behar. Orain, herrietan aerobic-a modan dago; eta hirietan oso modan.


■ **Aerobic-a osasunarentzako txarra al da?** - Aurretik azterketa bat egitea komeni izaten da. Aerobic-a ez da gomendagarria guztientzat, beste edozein kirol ez den bezala. Gaizki pasatzen dugunok aerobic-eko irakasleak gara, egunero ordu asko egiten baititugu. Gerora, lesioak agertzen dira.

■ **Eguraldi ona datorrela eta?** - Janaria zaindu eta hankak mugitu. Aerobic-era etortzea soluzio ona da, baina ez uda aurretik; ondoren ere bai.

- Adina: 22
- Beste kirolirik?

Eskubaloian jokatzen dut.

- Zaletasunak: Txakurra, mendia eta lagunak.
- Aerobic-a egiteko musika? Lau denborako erritmoduna, "bacalao" tipokoa.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



elektrizitatea

San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

Bittor Mujika, C.D. Elgoibarko entrenatzailea, bota egin dute



AITOR ZABALA

Bittor Mujika, dagoeneko ez da C.D. Elgoibar elkarteke Haundi taldearen entrenatzaile. Erabakia aste honetan hartu du futbol klubak, zaletuen aldetik izandako presioak direla eta. Klubeko kide batek esan digunez, "zaletuak ez zeuden batere gustura entrenatzailearekin eta, igandeko partidua bukatzean, publikoari aurre egin zion". Egoera oso bero zegoen partiduaren ostean, eta horrek, Bittor Mujika kargutik kentzera bultzatu ditu klubeko ordezkariak.

Dena dela, futbol zaletuek aspal-

ditik komentatzen zuten entrenatzailelea gogor xamarra zela jokalariekin eta inoiz, iraindu ere egin dituela.

Bittor Mujikaren zuzendaritzapean taldeak izan dituen emaitzak ere, ez dira hoberenak izan, eta horrek eduki du haren kaleraketan eraginik. Hemendik aurrera, Antonio Garcia Moreiras eta bere laguntzaile izango den Juan Martin Molins arduratuko dira taldea entrenatzeaz eta bederatzigarren postuan dagoen Haundi-ari bultzada eman eta, "play-off" a deritzona jokatzeko aukera eskaintzeaz.

Eskolarteko Gipuzkoako kros txapelketako emaitzak

Elgoibarko atletismo eskolako haurrek Gipuzkoako kros txapelketan parte hartu zuten igaroden astebukeran eta emaitza onak izan dituzte. Mireia Huidobrok hirugarren postua lortu zuen emakumezkoen alebin kategorian. Kategoria bereko neska taldea, hirugarren geratu zen Gipuzkoako txapelketan eta beraz, eskolaka egingo den Euskadiko txapelketarako sailkatu dira. Taldea Mireia Huidobrok, Evelyn Santosek, Oihana Martinezek, Ana Etxanizek, Maite Arenalek eta Eluska Escudero osatzen dute, eta guztira, 78 puntu dituzte. Aipagarria da, halaber, alebinetako mutil taldeak lortutako bederatzigarren postua.

Infantiletako mutil taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen eta Euskadiko txapelketarako sailkatu da. Asier Arenal, Gorka Sanchez, Fran Huidobro, Unai Arrieta eta Alain Ayalak osatutako taldeak 54 puntu dauzka.

Azkenik aipatu, Ana Etxanizek egindako lasterketa benjaminetan eta, esan, Oihana Chicok Euskadiko txapelketan Gipuzkoako taldearen barruan parte hartuko duela.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 26

10,00: C.D. Eibar - Sporting de Herrera (Kadeteak)

12,00: C. D. Elgoibar - Lagun Onak (Neskak)

16,30: Haundi - Zalla

Igandea 27

10,00: Eibar tarrak - Oiartzun (Neskak)

12,00: Urki - Antzuola (2. errejionala)

FUTBITOA Urasandin Igandea 27

10,00: Berrogei Duro - Arroak Lanbroa - Mimox

11,00: H. Verboten - Chelsea Kosakos - Resto del Mundo

12,00: Pedrusko - Oraiko Cafe Xirula - Karkis

ARETO FUTBOLA Kiroldegian Ostirala 25

22,00: Elgoibar A.F.T. - Ramon Vizcaino (1. maila)

23,00: Elgoibar A.F.T. - Casa Amalur (2. maila)

EMAITZAK

ARETO FUTBOLA

Junta Puerto 2 - Elgoibar 3

Cibrian 5 - Elgoibar 3

FUTBOLA

Haundi 1 - Anaitasuna 1

Muriku 2 - Elgoibar3 (2. errejionala)

Elgoibar 4 - Trintxerpe 2 (Jubenilak)

Elgoibar 0 - Real Sociedad 3 (Infantilak)

Elgoibar 2 - Hamaika bat 0 (Kadeteak)

Aretxabaleta 0 - Elgoibar 1 (Neskak)

XAKEA

Elgoibar A 3 - Txaturanga 1 (2. maila)

1993ko KIROL

Orainarte jasotako botuak



JUDO6 botu

Angel Mari Albizu, 24 urte


- Euskadiko selekzioko partaide.
- Burdeos-eko txapelketan 3.a.
- Euskadiko Sambo Txapeliduna.
- Gipuzkoako Txapeliduna.
- Euskadiko Txapeliduna.
- Eibarko Nazioarteko XXII Torneoan 2.a.
- Lisboako Nazioarteko Torneoan txapeliduna.
- Anglet (Frantzia)ko Torneoan 3.a.
- Sestuko IV Txapelketan 2.a.



PILOTAbotu 1

Juan Inazio Ansola, 25 urte


- Sigmako Torneoko txapeliduna.
- Deba arroko txapelketan semifinalista.
- Irun eta Usurbileko Txapelketan partehartzaile.
- Añorgako Torneoan final laurdenetarinoin iritsi zen.



TXIRRINDULARITZA9 botu

Alexander Galarraga, 16 urte

- Kadete mailako Euskadiko txapeliduna.
- Espainiako txapelketan 14.a.
- Zegamako txirrindulari proban 2.a.
- Segurako Txirrindulari proban 3.a.



TRIATHLOIA6 botu

Iñaki Konde, 42 urte

- Euskadiko triatloia C mailan burutu zuen. (3.800 igeri, 130 bizikletaz eta 30 korrika)
- Duatloian Euskadiko zirkuitoa hirugarrena bukatu zuen. (A mailan : 40-50 urte bitartean).



ESKUBALOIA4 botu

Alazne Rementeria, 27 urte

- 10. urtea Arrate Amaña ekipokoa jokutzen.
- 1. dibisioan jokatu eta igoera fasea jokatu zuten Molins del Rey (Kalaluña) eta Eibarren.



ATLETISMOA10 botu

Karmen Perea, 18 urte

- Pista estalia: Brontzezko domina Espainiako Junior txapelketan.
- Krosa: 8.a Euskadiko txapelketan.
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapelidun absolutua.
- Markak: 800 m. 2.15.41
1.500 m. 4.48.73



EHIZA0 botu

Patxi Arriola, 29 urte

- Gipuzkoako Oilagorren txapelketan txapeliduna.
- Espainiako oilagorren txapelketan laugarrena.



FUTBOLA6 botu

Joseba Etxeberria, 16 urte

- Euskadiko selekzioa (SUB-17): Madrid 3 - Euskadi 3 (2 gol)
Euskadi 5 - La Rioja - 1 (2 gol)
- Espainiako selekzioa (SUB 16): Suecia 1 - España 2 (gol 1)
España 5 - Israel 1 (gol 1)
- Errealeko jubenetan jokalaria.(16 gol).

BARREN Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz 1993ko Elgoibarko kirolari onena aukeratzen ari da. Berau aukeratzeko izen hauek proposatu dizkigute Elgoibarko Kirol elkarteek. Zuek aukeratuko duzue onena eta bidali erantzuna **BARRENERA**.

Erantzuten duzuenon artean **ARTEGI** elektratresna dendak emandako

SONY VHS BIDEO EDER BAT zozketatuko dugu.

OLARI ONENA



MENDIA 11 botu

Pablo Barrenetxea, 25 urte

Aitor Esnaola, 24 urte.

- Nanga Parbat espedizioan parte hartu zuten 8.000 metrotik gorako mendia egin zuten lehen elgoibartarrak izan zirelarik.



ARETO FUTBOLA 0 botu

Cesar Arriola, 29 urte

- 92-93 Futbol Areto txapelketan jokalaria onena aukeratu zuten beste ekipoetako entrenatzaileek partiduz partidu ematen dituzten puntuaketaren arabera.



IGERIKETA 3 botu

Judith Ajubita, 13 urte

- Lehen postua Eibarren, 400m. krolean
- Lehen postua Azpeitin, 100m. krol eta estiloetan.
- Lehen postua Oñatin 200 m. krolean.
- Lehen postua Legazpin 100 m. krolean. 1993. urtean marka pertsonal guztiak hautsi ditu.



HERRI KIROLAK botu 1

Harrijasotzailea

Javier Arriola, 20 urte

- 21 urtetik beherakoetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna.
- Adin librean: Bigarren mailako txapelduna eta Euskadiko bigarrena.
- Elgoibarren 105 jasoaldiko marka 3 jasoaldigatik hobetzea lortu zuen.




KARATEA 27 botu

Josu Duran, 10 urte

- Lehen postua Azkoitin jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Lehen postua bi aldiz Markinan jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Parte hartu duen txapelketa guztietan lehen postuan geratu da.

ARTEGI



Erantzuten duzenon artean

SONY

VHS BIDEO BAT zozketatuko dugu.

ZEIN DA 93ko KIROLARI ONENA?

IZEN ABIZENAK

HELBIDEATel

Udal euskaltegia: euskarari gogor ekinez

Udal euskaltegien mugimendua 1981. urtean hasi zen, Euskadiko biztanlegoaren euskalduntze eta alfabetatzearen premiak bultzaturik, Eusko jaurlaritzak Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako erakundea sortu eta gero.

Elgoibarko udalak, Eusko Jaurlaritzaren asmo horren berri izanik eta demanda kontutan harturik, 1983. urtean, udal Euskaltegia sortzea erabaki zuen. Lehendabiziko urteak arrakastatsuak izan ziren: ikasle eta talde ugari izan zituen eta hauetako asko ikastaro trinkoetan aritu ziren (5 eta 3 ordutakoak).

Euskalduntze-Alfabetatzeak urteen buruan, gorabehera franko izan dituen arren, aurtengo ikasturtean ere matrikulazioak gora egin duela ikusi dute.

Urtean zehar hiru matrikulaldi egiten dituzte: otsailean, ekainean eta irailean. Udako edo ekaineko matrikulaldian, uztaileko bi aukera ematen dizkiete ikasleei: bata, bertan Elgoibarren egiten den uda ikastaroa, eta bestea, Gipuzkoako "Udal Euskaltegiak" eratzen duten barnetegia.

Metodo bakoitzak dituen alderdi on guztiak erabiltzen ditu irakasleak.

Jendeak, bertan matrikula dadin, 16 urte beteak izan behar ditu. Dena dela, 14-16 urte arteko



■ ■ Udal Euskaltegiko irakasle taldea.

gaztetxoak, eskolatik kanpo euskara eta alfabetatze munduan, inolako laguntzarik gabe geratzen direnez, eta beraien beharrei aurre eginez, Udalak subentzionaturik 1989az geroztik, talde hauei ere klaseak emateari ekin diote.

Irakasleen artean ere, batzuk plantilakoak dira eta beste batzu (eskaeraren arabera) orduka aritzen dira.

Ez dute metodologia zehatz bat erabiltzen; edozein metodori itsu-itsu lotu ordez, metodo bakoitzak dituen alderdi on guztiak erabiltzen ditu irakasleak.

Garrantzizkotzat jotzen dute euskararen kulturaren berri ere ematea eta hori erakutsi edo lortzeko kanpo ekintzak edota ekintza osagarriak antolatzen dituzte: diapositiba emanaldiak, Aldundiaren laguntzaz "Euskal kantagintza" deritzon programan ere parte hartzen dute, aurtengo ikasturtean hain zuzen ere, Anje Duhalde eta Ruper Ordorika kantariak abestuko dute.

Ekintza osagarri horien artean ere, herriko talde edo erakundeen arduradunek nahiz pertsonaia famatuak elkarriketatzen dituzte.

Urtero, Gabonetako opor

aurretik, Euskaltegiaren jaialdia, ipuin eta txiste lehiaketa eta afaria antolatzen dituzte, ia talde gehienek parte hartzen dutelarik, antzerkia, txotxongiloa, abestia e.a. eginez.

Ekainean ere eta ikastaroari bukaera emateko, txango edo afari bat egiten dute. Iazko ekainean, Arabako Errioxara joan ziren.

1993.eko urtarriletik, Deba eta Mutrikuko euskaltegiekin batera, DEBABA mankomunitatea osatu zuten.

Krisialdia dela eta, diru arazoengatik euskara ikasi gabe inor geldi ez dadin, Udal euskaltegiak baldintza bereziak eskaintzen dizkie ikasle eta langabetuei, eta beka sistemaren bidez euskara dohainik ikas dezakete.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1983

Langileak: 8

Ikasleak: 196

Zuzendaria:

Agurtzane Epelde

Iharduera:

Euskalduntzea-alfabetatzea

Helbidea:

Nafarroa Enparantza, 2

Atal berriak, gehigarri bereziak eta kolorea BARRENen

BARRENek zenbait berrikuntza izango ditu martxotik aurrera. Orain arte 20 orrialde izan baditu, datorren astetik aurrera 28koa izatera pasako da. Atal eta gehigarri bereziek osatuko dute BARREN berria, horietan, besteak beste, gazteak, hirugarren adina eta baserritarrak protagonista bihurtuko ditugularik. BARREN berri honen azala, gainera, koloretan izango da.



■ ■ BARRENek azala eta kontrazala koloretan izango ditu hemendik aurrera

A benduan ospatu zuen BARRENek bere lehenengo urtebetetzea. Denbora horretan, etxe askotan sartu izan da ostiralero eta gutxi izango dira noizbait eskuartean izan, begiradaxo bat eman edo, sikira, inoren ahotan BARREN aipatzen entzun ez dutenik. Irakurlearen begiak ohituak daude atal berberak orden beretsuan ikustera: eskutitzak, erretratu zaharra, erreportaia... Baina ohitura hori monotonía bihur ez dadin, hainbat atal berri gehituko dizkiegu orain arteko "beteranoei".

Horietako batzuk ezagunak egingo zaizkie zenbaitzuei, Gabonetan kaleratu zen BARREN berezian agertu ziren eta. "Txokorik txoko" da horietako bat, Elgoibarko bazterrak ezagutarazteko eginiko atala. "BARREN Graffiti" deiturikoan bidaltzen dizkiguzuen marrazki,

komiki, karikatura, olerki eta bestelakoak jarriko ditugu. Hirugarrena "Gogoratu" atala da, Elgoibarko pertsonaia ospetsuak oroitu eta ezagutarazteko sortua. "Udaletxetik-udalerrira" izenpean, udaletxean jorrazten diren gaiak jakinaraziko ditugu eta udaletxeko langileak ezagutuko, bakoitzak betetzen duen funtzioa zehaztuz.

Gazteak ere BARRENeko protagonista izango dira martxotik aurrera. Gazteek gazteentzat eginiko atalean, gazteei buruzko informazio, elkarrizketa eta antzekoak landuko dira. Atalaren izena, "Gaztaroa aro eroa".

Gehigarri bereziak lau izango dira, astean bana, bakoitzak lau orrialde izango dituelarik. Hileko lehen ostiralean "TxikiBARREN" joango da. Izenak dioen bezala,

OHOk haurrentzat zuzenduriko gehigarria.

Bigarrenik, hirugarren adinekoen txanda izango da. Euren aspaldiko kontuak ezagutuko ditugu. Horrezaz gain, gai bereziak jorraztuko dituen informazioa emango da: osasuna, pentsioak...

Elgoibarko Izarrak mahaingurak antolatuko ditu hilean behin eta horien berri ere emango dugu gehigarri berezietan.

Eta, azkenik, "Kale zulotik baserrira" joango gara. Hileroko feriarri buruzkoak jakingo ditugu, baserritarrak eta beraien iritziak ezagutuko.

Kolorea, atal berriak eta gehigarri bereziak. Guzti horiek BARRENen datorren ostiraletik, martxoak 4, aurrera.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Fotero

OKINDEGIÀ

OPILEDGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

25 OSTIRALA

19,00 ELGOIBARKO IZARRAREN BATZAR OROKORRA

✓ Kultur etxean

22,15 ZINEA

"La madre muerta"

Zuzendaria: J.M. Bajo Ulloa
Aktoreak: Karra Elejalde, Ana
Alvarez...

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

26 LARUNBATA

12,00 GATZA ATENEOAREN AURKEZPENA

✓ Kultur etxean

17,00 RADIESTESIARI BURUZKO BILERA

✓ Kultur etxean

21,00 BERTSO AFARIA

JOXE LIZASO ETA IMANOL LAZKANO BERTSOLARIEKIN

✓ Sallobente Elkartean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra eta
Sallobente Elkartea.

27 IGANDEA

12,30 HBren MITINA

"Gure ekonomia defenda dezagun!"

Hizlaria: Karlos Rodriguez (Herri
Batasunako Sozio-Ekonomia
Batzordeko arduraduna).

✓ Plaza Handian

19,30-22,15 ZINEA

"La madre muerta"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

28 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"La madre muerta"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

19,30 HITZALDIA

"Nortzuk dira gaur egun Euskal Herriko behartsuak?"

"Klarisa izan, behartsuak izanik
eta behartsuenganako ateak ireki
eta biziz"

Hizlariak: Arturo Garcia
(ekonomilaria) eta Sor Maria
Vitoria Triviño (teologoa)
✓ Santa Klarako konbentuan

1 ASTEARTEA

19,30 HITZALDIA

"Emakumea bere askatsunaren sortzaile"

"Klara, bere garaiko kateak
apurtu zituen emakumea"

Hizlaria: Sor Maria Vitoria Triviño
(teologoa)
✓ Santa Klarako konbentuan

2 ASTEAZKENA

19,30 HITZALDIA

"Gaur egun klausuran bizi, zertarako"

Hizlaria: Sor Maria Vitoria Triviño
(teologoa)
✓ Santa Klarako konbentuan

3 OSTEGUNA

15,00 SOLASALDI-ELKARRIZKETA

Gaia: Irakaskuntzaren
erreforma eta honen eragina
LOGSE batxillergoetan.

Hizlaria: Antoni Zabala
(Kataluniako ikertzailea)
✓ Lanbide Eskolako aretoan
Antolatzaileak: LH I eta Institutua.

19,30 HITZALDIA

"Zertan lagundu dute Santa Klarako lekaiameak Elgoibarko herrian"

Hizlaria: Joxin Arregi
✓ Santa Klarako konbentuan

4 OSTIRALA

19,30 HITZALDIA

"Asisko Klara, Eleizaren 800
urtetako historia argitzen duen
argia"

"Gaurko kristau bati zer esango
lioke Klarak"

Hizlaria: Iñaki Beristain (Teologoa)
✓ Santa Klarako konbentuan

22,15 ZINEA

"Shirley Valentain" (L. Gilbert)

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.
Antolatzailea: Ongarri zine kluba
eta Andraize Emakume Taldea.

ZINEA

"La madre muerta"

Nortasun infantila duten bi
pertsonek arteko harreman
sentimental gogorra kontatzen du
pelikulak: Ismael eta Maiteren
arteko harremana, alegia. Ismael
gizon basatia eta biolentoa da eta,
Maite, gaiso itxurako emakumea da,
bakarrik ez gelditzearren Ismaelen
jokabidea onartzen duena.

ZINEA

Etxebizitzak

Pisu bat salgai dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.
74 34 03

Logela bat daukat alokatzeko. Erropak ere garbitzen ditut.
Tel.: 74 24 06

Etxe bat erosiko nuke Deban. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gaeuz 19,30etatik aurrera.
Tel. 74 04 59

Etxe bat salgai daukat Santa Klara 24an. **Tel: 74 40 52.** Ofizina orduetan deitu.

Baserri bat hartuko genuke
Tel.: 76 62 64. Imanol

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zerbakian.
Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)

Etxebarrin etxebizitza berri bat dago salgai. 87 m² Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea.
Tel.: (943) 70 12 71

Lana

Hiru neska gara eta astebukaeretan umeak zaintzeko prest gaude. Deitu 74 05 36/74 08 46. Gaeuz.

Salerosketak

ADI!!
Renault 19 Chamade 16V. SS AK bat saltzen dut. Prezio oso ona. **BIKAINA.**
Tel.: 74 23 64 (Bazkal eta afal orduetan deitu)

Artzai txakurrak saltzen ditut. Bi hilabete dituzte.
Tel : 74 33 76 Ainhoa

Garaje bat alokatzten dut. Santa Ana 2an. **Tel: 74 32 48 Ana**

Trikitixa jotzeko soinu txiki bat daukat saltzeko.
Tel.: 74 11 29 ofizina orduetan

Gitarra elektriko bat salgai. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin.
Tel. 74 02 36 Deitu arratsaldean ofizina orduetan

Arropa sekadora - zentrifugadora bat saltzen dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 ptatan.
74 19 81 (Ana Mari)

San Antolin auzoan lokal bat alokatzeko daukat. Taberna ondoan. **Tel: 74 17 95**

Ekonomika bat saltzen dugu. Berria. Deitu lanordutan.
Tel.: 74 16 38 Ainhoa

Bestelakoak

Duela hilabete Aterpe inguruko telefono kabina inguruan lo egiteko saku bat aurkitu nuen. Deitu gaueko 8-9etara 74 31 41 telefonora.

Karnabaletako asteartean erloju bat galdu nuen.
74 19 34 Maider

Karitasek lo egiteko saku bat behar du.
74 15 09 / 74 12 57

Karitasek 125 W.eko frigorifiko bat dauka behar duenari emateko.
74 15 09 / 74 12 57

Pasa den hilak 4ean, urrezko pultsera bat galdu nuen, Plazatik, Eroskira eta handik Elizara egin nuen ibilbidean. Arratsaldeko 6,30eta 7ak bitartean izan zen. **Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu 74 15 24 ra.**




ESKEINTZA BEREZIAK

Erakusketa aldaketa dela eta era guztietako sofa eta tresiloetan
BEHERAPENAK

Siloi zaharra ekartzen baduzu
5.000 pta jasoko dituzu !!

EL ALMACEN DE ELGOIBAR

Altzariak



Erosi ala ez zatoz gu bisitatzera!

Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR

Maria Urizar

ileapaindegi mixtoa



Martxoak 2an INAUGURAZIOA
7etatik 9etara
Martxoak 3an IREKIERA

Errosario 9-1 eskuma. ELGOIBAR



PAGOAGA S.A.

Iturgintza

- ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA

☎ 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR